

Kattalin Zurutuza Eskisabel

E maila • 2 saria

Kattalin naiz eta Beasaingo Ikastolako LH6. mailan nago. Asko gustatzen zaizkit animaliak eta landareak, irakurtzea eta jende berria ezagutzea. Ipuin eta bertso hauekin munduan kezkatzen nauten gaiak salatu nahiko nituzke, ea egunen batean mundiu hobe bat dugun.



Doinua: Orioko balearena

KUTSADURA

Nahi gabe sortzen dugu
hau gure mundura,
etengabe ari da
kaltetzen natura,
eta hondatzen ditu
lurra eta ura,
joan zaitez hemendik
arren, kutsadura! (bis)

Gure mundua dago
nahiko birrindua,
poloetan izotza
osorik urtua,
non bila dezakegu
horren ukendua?
maitatu eta zaindu
dezagun mundua! (bis)